

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

77/2019 Foru Agindua, azaroaren 8koa. Rosario Fernández Sanz behin-behinean izendatzea Eskuernaga, Samaniego eta Mañuetako udalen taldeko idazkari, 2019ko azaroaren 10erako, hauteskunde orokorrak direla eta

Eskuernaga, Samaniego eta Mañuetako udalen taldeak jakinarazi du aldi batean idazkari lanak egiten zituenak (Ágata Ariane López Santana) uko egin diola lanpostuari urriaren 31n. María del Mar Arranz lanpostuaren titularra beste lanpostu batean dagoenez zerbitzu eginkizunetan eta, 2019ko azaroaren 10ean hauteskunde orokorrak direnez, behin-behineko izendapena egin behar da lanpostua betetzeko egun horretan.

Hori dela-eta, proposatu du egun horretarako Rosario Fernández Sanz talde horretako funtzionarioaren behin-behineko izendapena egitea, zeinak administrari laguntzaile lanpostua betetzen baitu udal horretan.

Bat etorritz estatu osorako gaikuntza duten toki administrazioiko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52. artikuluan xedatutakoarekin.

Kontuan hartu da Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunaren abenduaren 27ko 27/2013 Legeak 25. artikuluan xedatutakoa. Lege horrek Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du, 92.bis artikulua berria sartuz, non zehazten baita toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian agindutakoa betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskuduntzen ondorioz, horien indarrez eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Rosario Fernández Sanz behin-behinean izendatzea Eskuernaga, Samaniego eta Mañuetako udalen taldeko idazkari, 2019ko azaroaren 10erako, egun horretan hauteskunde orokorrak dira eta.

Bigarrena. Izendapenak aurreko idatz zatian adierazitako egunerako soilik izango du indarra.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesdunei, Eskuernaga, Mañueta eta Samaniegoko udalen taldeari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, bai eta berau ALHAOn argitaratzeko agintzea ere.

Gasteiz, 2019ko azaroaren 8a

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua
IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orekaren zuzendaria
JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTÁLORA